
SAKRIFIKATU BEHARREKO APEZA

Zazpiak eta laurden ziren, ordu laurden lehenago han nintzen eserita izkinako mahaian, inork urduri nengoela jabetu ez zedin. Inauteri asteartea zen, Momotxorroak Zelandiko frontoian prestatzen egonen zirela pentsatu nuen erlojuari begiratzen nion aldietako batean. Minutuak astiro agortzen ziren liburutegian nuen isiltasunak eta bakardadeak lagunduta, gainera, ez nintzen gai esku tartean itsatsita nuen aldizkaria irakurtzeko. Burua jaso eta leihotik begira entretenitzen saiatu nintzen baina momentuan etsi egin nuen, aldizkaria apalean utzi eta liburutegitik atera nintzen. Kanean mugimendua zegoen, mozorroto gabekoak eta sorginak ikusten ziren karriketan gora eta behera. Aurrez aurre kafetegi bat nuenez, kafe bat hartzen minutuak arinago pasako zirela pentsatu nuen.

Mahai batean eserita kafea hartzen nengoela, sorgin talde bat kafetegira sartu eta nire inguruan dantzatzen hasi ziren garrasiak eta barreak musika balira bezala. Batean sorginetako batek mahai gainera salto egin zuen. Atso zaharra ematen zuen zimurrak eta guzti baitzituen aitzitik erakustaldi bikaina egin zuen, lizunkeriaz jorratutako mugimenduen ostean besoa luzatu eta paper tolestu bat eman zidan. Sorginak mahaitik beheratu eta bere taldekideekin alde egin zuen Altzania kalerantz. Papera irakurri nuen **“gau magikoetan irudimena errealtatea izan daiteke, jarrai iezaguzu ”** Orduan bai ez nuela deus ez ulertzen. Kafetegiko horman esekita zegoen erloju zaharrak zazpi eta erdiak pasa markatzen zuenez egoera aztertzeko abagunea zela uste nuen. Astelehenean jasotako email-a patrikan gordeta nuen orri batean inprimatua. **“Denon artean geldituko dugu, gure gaintetik ez da pasako.** Gure beharrak zugana eramán gaitu bihar 7:30ean lortia liburutegian ”hori idatzia egoteaz gain Altsasuko plano zati bat ere gehituta zegoen email-an. Erabat nahaspilatua nengoen, alde batetik email-ez liburutegian elkartzekotan geratu nintzen, ustez AHT elkarlanarekin, baina horrenbeste misterio zela medio zer edo zer serioago izan behar zuen. Bestetik, sorginak notatxo bat eman zidan, zergatik niri? Loturarik zuen email-arekin? Orduan nola zekiten kafetegian nengoela eta ez liburutegian? Zelatatuta nengoen? Gehiegi pentsatu barik, kemenik ez galtzeko paperak sakelán sartu eta sorginei jarraitzea erabaki nuen.

Arrapaladan irten nintzen kafetegitik sorginak urruti egonen ziren beldur baina Altzania kalera iritsi nintzenean, hau San Juan kalearekin gurutzatzen deneko kantoian geldirik zeudela ikusi nuen. Ni ikusi bezain pronto beren bidaiari ekin zioten niri itxaroten baleude bezala. Distantzia jakin batetik jarraitzen nituen badaezpada ere. San Juan kaletik perpendikularki Isidoro Melero kalera jo zuten eta handik zuzen Zelandi frontoira. Bertan sartu ginen, ordurako Momotxorro gehienak prest zeuden, lasterkan alde batetik bestera berotzeko asmotan. Mozorrotoak irteteko garaia hurbiltzen zen heinean oihuak eta marruak areagotzen ziren ilunabarrak basatiagoak bihurtuko balitu bezala. Oharkabean sorgin batek txerri odolez aurpegia likistu ninduen eta beste batek odoletan zikindutako mandil bat ipini zidan soinean. Berehala jabetu nintzen mandilean odolarekin idatzitako mezu bat zegoela **“ hemen hasten da zure bidaia ”**. Mezuak zer esan nahiko zuen erreparo egin gabe Momotxorroen artean bidaiari ekin nion.

Zelanditik Isidoro Melerora abiatu ginen. Badaezpada ere guraso eta haurren artean babesten nintzen, alde batetik, akerrak ospatzen zuen akelarre amaigabetik urrun, eskaintzen zituen animalia tripakiak eragingo zidan goragalea ekiditeko. Bestetik Momotxorroen sardeen sastadak saihesteko eta aldi berean bertatik musikaz alaituta sorginen dantzak ikusten zirelako. San Juan karrikara iritsi ginenean, begirale taldeak zeudenez Momotxorroak sakabanatu ziren horien atzetik. Sorginak akerraren falta sumatzean deiadarka hasi ziren, beraien artean bultzaka nora ezean birak emanaz. Orduan sorgin talde batek bultzatuta lokal batera sartu ginen. Lurrean ziplo erori nintzen gela baten barruan. Gelak batzar areto bat ematen zuen, hutsik zegoen. Lurretik altxatzen ari nintzela ate bat zabaldu eta gizon trajedun bat agertu zen. Niregana hurbildu zen, eskua eman eta patrikako liburu bat eman zidan. Tutik esan barik alde egin zuen agertutako bide beretik. Liburuaren azala beltza zen, liburua zabaldu eta ohar bat zuen idatzita, **“ez zaitez su ospakizunean sartu, entzun jainkoaren hitza”**. Lokaletik atera eta ate gaineko errotulua irakurtzean baieztatu nuen jeoba erreinuan sartu nintzela. Kanpoan zegoen sorgin taldea ni itxaroten, gainontzekoak ibilbidea jarraitzen egonen ziren. Keinu batez jarraitzeko esan zidaten. Handik zuzen beherantz joan ginen Zumalakarregi enparantzara.

Gainontzekoekin batera iritsi ginen plazara. Enparantza erdian izugarritzko sutea prestatuta zutenez, korrikan bertara gerturatu ginen. Akerrak saioari hasiera eman zion eta sorginak suaren inguruan dantzatzen hasi ziren. Afrosiako beteriko botila bat eskuz esku pasatzen ziren trago bana hartuz. Sorginak belar lehorrak sutara botatzen zituzten akerrak txanda emanaz gero. Sorginetako bat nigana etorri zen, erreberentzia bat eginez belar magikoz beteriko larruzko ziskua eskaini zidan. Poltsatxoa zabaldu nuen eta senda belar lurrintsuen usain goxoa usaindu nuen. Bazegoen baita paper txiki bat ere **“abereak edota animalia basatiak egarria asetzera goaz”** zioena. Momentu hartan pentsatu nuen norbaitek adarra jotzen ari zitzaidala edo proba baten aurrean nengoela.

Garai batean, abeltzainek animaliak Ferial kalean dagoen askara ura edatera eramaten zituztela gogoratu nuen. Papertxoak bertara joatea eskatzen zidatela bururatu zitzaidan. Nire susmoari kasu eginez Ferial karrikarantz abiatu nintzen. Bidean jabetu nintzen bakarrik nindoala, sorginen laguntza gabe. Aska ondora iritsi nintzen baina ez zegoen urik odola baizik. Norbaitek litro pila odol isuri zituen aska barrura. Harrian ohar bat nuen idatzita **“Odoletan purifikatu zaitez eta zoaz agurraren testigu izatera”**. Aska barrura sartzea pentsamendu hutsak, sekulako higuina sentiarazten zidan. Nazka hori menperatu barik, eskuak bertan sartu eta aurpegia gorritz margotu nuen. Ondoren foru enparantzara abiatu nintzen, agurra emanaz Momotxorroek dantzatuko zuten zortzikoaren aitorle izateko.

Minutu batzuk itxaron behar izan nituen lehenengo momotxorroak plazan agerraldia egin zezan. Talde osoa bildu zenean, txistuen melodiarekin zortzikoa dantzatu zuten. Momotxorroen ondoren sorginek txanda hartu zuten. Hauek ere kioskoaren inguruan jai ofizialari amaiera ematen zion dantza dantzatu zuten. Arratsalde osoa atzetik izan nuen sorgin taldea dantzan zegoela begiztatu nuen. Nire parera iritsi zirenean jendearen artetik niregana etorri ziren. Besotik heldu eta dantzatokira arrastaka eraman ninduten. Katuak artilezko bolekin jolasten duten bezala bultzaka eramaten zidaten kioskoaren inguruan. Kioskoari bira oso bat eman genionean, sorginetako batek **“dauzkazun pistaz lagunduta aurkitu planoan zure puntua ”** xuxurlatu zidan belarrira eta bultzada txiki bat eman zidan dantzatokitik ateratzeko.

Elizako espaloietan eseri nintzen gertatutakoa hausnartzeko. Email-ean bidalitako planoak patrikatik atera nuen eta hari begira arratsaldean egindako guztian pentsatzen jarri nintzen. Bat-batean ideia bikaina bururatu zitzaidan, Itzel! Banuen!. Planoan egondako leku guztiak puntu batez markatu nituen, ondoren, puntuak beraien artean lotu nituen lehenengotik hasita azkenekora arte. G letra bat irudikatu zitzaidan planoaren gainean eta sorginak **“aurkitu zure g puntua ”** esan nahiko zuela uste nuen. Ildo horretatik jarraituz, sakandar guztiok dakigu esaldi hori ospetsua dela Guaixe aldizkarian, beraz hango bulegorantz abiatu nintzen. Bulegoko txirrina jo nuen. Berehala gizon baten ahotsak sartzeko eta beheko solairura jaisteko esan zidan. Beldurra eman zidan eta une batez hormatuta geratu nintzen. Asier, zer egonen da atearen beste aldean? Zu itxoiten al daude? Sartzearekin ez dut ezer galtzen? Baitzen banaute, agian hurrengo astean nire ezkontzara ez agertzea? Galdetzen nion nire buruari aurpegian irribarre faltsu bat nuela. Momentu hartan, ateko kristalean nire burua islatua ikusi nuenean, norbaitek ederto adarra jo zidala pentsatu nuen. Ze itxurak neramatzan! mandil bat soinean, bistan nuen azal guztia odolez zikinduta, esku batean biblia eta bestean senda belar poltsa bat. Inauteriko pertsonaia berria ematen nuen, sakrifikatu beharreko apeza beharbada.



Egilea: Abarne Villar